

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure bizikleta dendak Lakuako zonalderik populatuenean bizikleta dendarik ez egotearen beharra asetuko du, han bizi diren gazte gehienek bizikleta hirian zehar mugitzeko duten garraio nagusia delarik.

Bezeroarekiko arreta gertukoa eta pertsonalizatua izango da. Gainera, merkatuko preziorik onenak bilatuko ditugu kalitateari uko egin gabe. Horretarako, lehen mailako kalitatea duten markak izango dira gure hornitzaileak. Horrez gain gure mekaniko taldea txirrindularitza munduan esperientzia profesionala izan duten pertsona talde batek osatuko du, merkatuko kalitaterik onena eskainiz.

Gure denda lau esparru ezberdinetan banatu dezakegu, hasteko, publiko guztietara bideratutako bizikleta mota ezberdinak salduko ditugu. Bigarren tokian beharrezkoak diren bizikleta pieza guztien salmenta ere egingo dugu. Hirugarren lekuan txirrindularitzaren praktikarako beharrezkoak diren arropak eta osagarriak aurkituko dira eta azkenik, publiko zehatzago bati zuzendua gama altuko produktuak eskainiko ditugu, aurretik aipatutakoenak, bizikletak, piezak eta arropa zein osagarriak.

Dendaz aparte bizikletak erreparatzeko tailerra ere izango dugu, edozeinek haren bizikletarekin arazoak izatekotan haiek konpontzeko. Gainera gure lokalaren txoko bat txirrindularitza zaleei zuzendua egongo da. Txoko horrek kirolaren nondik norakoak jarraitzeko eta zabaltzeko aukera emango du eta horretarako telebista bat, lasterketak jarraitzeko, eta txirrindularitzari zuzendutako aldizkari eta materialak aurkituko ditugu.

Gure balio nagusiak honako hauek dira:

- Zintzotasuna eta errespetua
- Konpromisoa
- Konfiantza
- Gizarte Erantzukizuna